

2020 urteko Memoria

1. TOKIKO ORDEZKARITZARI BURUZ

Tokiko Ordezkaritzarik gabe segitzen dugu. Bete behar dugun helburua da. Hala ere ikastetxeko pastoraltza taldeak bere gain hartzen du ordezkaritza horren zeregina. PROEGAREN ordezkaria Juan Luis URMENETA da. Taldekide ditu: Koro Agirre (Haur Hezkuntzan), María Agirre (Lehen Hezkuntzan), Markos Roca (DBHn) eta Maider Lizarralde (Lanbide H.).

2. PROEGAK SUSTATUAK




4. KALETARREN HEZKUNTZA
 ETORKIZUNA ERAIKITZEN DUGU
HEZKUNTZA
 gure tresna

2030 HELBURUA
 Bermatu kalitatezko hezkuntza inklusibo eta bidezkoan parte hartzea.

GARAPEN IRAUNKORERAKO HELBURUAK

Gogoeta asterako kartela



LaSalle Berrozpe
LSB
 Andoain

LSBuletina
 Ziklo 24 - 2020/03/05

OROKORRA

AHOLKUNEN GIDA ESKOLA ADINEAN ELIKADURA OSASUNGARRIA EDUKITZEKO
 Haurtarotik elikadura-ohitura osasungarriak sortzeko eta finkatzeko gomendioak, bai eskolako jangelaan, bai etxean. Elikadura osasungarria, oro har da edo ez da osasungarria, eta, beraz, ez da nahikoa ikastetxetako jangelaian elikadura sidiari zuzenak diren pautak betetzeko, eskola adineko ahorrakien gaitasunak honetatik kanpo egiten baitira. Horregatik egin da gida hau, eskola-eremutik kanpoko gaitasunak otorduetan oinarritutako gomendioak dietetiko arakor eta espezifikoei.

Gidak 5 eskuliburu dauzka:

1. Elikadura osasungarria eskola adinean
2. Eskola adineko aholku dietetikoak
3. Ikastetxetako menuetarako aholku dietetikoak
4. Ikastetxetako menuak osatzeko aholkuak
5. Eskola adineko elikaduraren lotutako beste hainbat alderdi

Gida honetako aholkuak euskarri diren oinarri teknikoak nutrizioan adituak direnen adostasun handia dute, eta horren inguruko dokumentu nagusietatik saihestu eskaini dira.

Gida honen kopia elektronikoki emailan agertzen den estekan eskura daitezke.

PROEGA 2020 - NCHMON YOL (GUATEMALA)

Nazio Batuek Garapen Iraunkorerrako 17 helburu onartu zituzten duela bost urte. Horietatik bostgarrena genero berdintasunaren aldekoa da.

Emailan agertzen den loturan aurki dezazue azalpen txiki bat.

Ahian den astean horri buruzko gogoetak egin dira ikasgelaian. Detorren asterako ekintza bat proposatzen dugu ikastetxeko pertsona guztioi PROEGAKi, gobernuaren laguntza eskatzeko. Helburu horren lotutako proiektu baterako diru laguntza eskatzen du surten PROEGAK. Guatemalan ari da garatzen eta "nesken heurdunaldi gaitasun eta beraien kontrola biolentzia eskolara, beti ere hezkuntzaren bitartez," du helburu. Proiektuaren berri zehatzagoak buruzko honen jarraian irakur dezazue (Erantsitako artiboaren).

LSB ikastetxeak beti egin du proiektu horien laguntza gainerako La Salle ikastetxeek egin duten bezala. Horregatik zuen borondatezko laguntza ekonomikoa eskatzen dugu.

Gutun azala emango zaito ikaste bakoitzari diru bertan jarri eta ikastetxera ekar dezan. Hainbat hartu mesedez, diru helarazteko azken eguna martxoak 18 izango dela.

Kanpainaren iragarpena ikastetxeko persona guztiei.

PROEGAK bultzatutako ekintza hauek eraman dira aurrera ikastetxean, une ezberdinetan.

Lehena azaroan egin zen. PROEGAK eta veste GKE batzuek proposaturiko eskola jarduerak aurrera eramanez. Gaia Nazio Batuek jarritako Garapen Helburuetatik laugarrenak jarri du: **Kalitatezko Hezkuntza**.

Bigarrena Gabonetako **Postalen salmenta** langilegoari eta familiei egitea. Arrakasta txikikoa izan da 220 baino ez dira saldu. Kontutan hartu behar da horietako 120 ikastetxeak berak erosten dituela langileak zoriontzeko.

Martxoan jarri zen martxan urteroko kanpaina, geroko etxeratzeak etengo zuena. Guatemalako **NCHMON YOLen** neskatoen hezkuntza sustatzen duen proiektua izan da kanpainaren gunea. 757€ jasotzea lortu da.

Pandemiak zerbitetan eragina izan badu ikastetxeko **bidezko merkataritzako** produktuen salmentan izan du. Salmenta hori PROEGArekin bat egiten baita. Alde batetik gorderik zeuden zenbait produktu galdu egin direlako eta bestetik segitu behar diren osasun protokolo zorrotzek salmenta eragozten dutelako..

3. **BOLUNTARIOTZA. TANDANACUI eta JENDE XUMEA TALDEAK**

Ikastetxean ez dugu halako talderik, joan den urteko Jende Xumeko taldekideen artean noizean behineko komunikazioa badago ere. Adibidez: abenduan Ugandarako bizikleta bat apadrinatzeko gonbidari heldu diote, Volibian ezagutu zuten Plataforma Solidaria erakundearen proposamenri erantzun nahiez.

Baina boluntariotza suspertzea hamasei urtetik gorako ikasleen artean oinarrizko helburua dugu. Kirol begirale edo aisialdi begirale izateko eskaintzaz aparte Andoaingo CARITASek bultzatutako ekintza batean parte hartzeko aukera ematen zaie ikasleei. CARITASek eskolaz kanpoko jarduerak –“akadmeikoak”- antolatzen ditu eskola laguntza modura. Gure ikasleak aukera dute begirale-irakasle gisa parte hartzeko. Iniziatiba hau, beste askoren antzera, eten behar izan da martxoko etxeratzearekin batera.

4. **BESTE EKINTZAK**



Martxan jarri da urtero legez tapoi bilketa SEUR Fundazioarekin batera. Ikastetxeko bi toki daude horretarako: Berrozpeko sekzioko ataria eta Administrazio Zikloko irakasle gelaren aurrea. Araian-arian hiru aldiz eraman dira SEUR Fundazioaren egoitzara pilatutako tapoiak.



URATARRILAREN 23a arte

Urtarrilaren hasieran posible izan zen Andoaingo Udalak eta Hurria Sahara elkarteak bultzatutako **“Elikatu itxaropena”** sahararen aldeko karabanan parte hartzeko gonbidapenarekin bat egitea.

Ezin izan dugu, ordea, urtero urrian egin ohi dugun arropa bilketa egin. Gero **CARITAS**-i helarazteko.

Abenduan gobonetako janari bilketa egin ohi izan dugu herriko CARITASen alde. Aurten Gipuzkoako Caritas-ek bultzatutako kanpaina batek ordezkatu du: maskarak, garbikariak eta osasun produktuak jasotzea.



Berrozpeko sekzioan jasoak



Erainkuntza nagusian jasoak

Pandemiak **Gipuzkoako Odol Emailekin** lan gehiago egiteko aukera eman digu. Urtero bezala, martxoaren 2an lehen aldiz odola emateko aukera emaneko helburuz etorri ziren ikastetxera. Hamazortzi urte bete berri dituzten ikasleei zuzentzen zaie deia, baina adin horretatik gorako pertsonak (ikasleak, ikastetxeko langileak ...) har dezakete parte. 27 pertsona baliatu zen aukeraz.

Baina COVID19a dela eta erakunde horrek ezin izan du hilero Andoainen egiten duen odol ateratzea ohiko tokian egin. Ekainetik azarora arte ikastetxeak utzitako tokian jaso ditu odol dohaintzak.

5. AMAIERA MODURA

Amaiera modura bi gauza azpimarratu nahiko genituzke:

- Memoria honetan azaldu diren ekintzak, nola ez, COVID 19ak eragindako pandemiaren eragina pairatu dute, bai martxoan gertatutako etxeratzeagatik bai eta ikasturte berrian izan duen eraginagatik ere, taldean egin zitezkeen ekintza oro ezinezko bilakatu baitira.
- Ikasleekin harreman zuzenak berebiziko eragina eragina du, bereziki haien sentiberatzean edota haien izaera solidarioaren hezieran. Ikastetxeak badu beste tresna baliogarri bat guztion informaziorako eta gogoeta-eragile dena, BULETINA hain zuzen ere. Astero bidaltzen zaie familia guztiei eta ikastetxeko langile guztiei, web orrian jartzen den era berean.